

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

1917

EBAZPENA, 2021eko martxoaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabaki bat. Erabaki horren bitartez, zenbait diru-baliabide esleitzen dira 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak 2021ean finantzatzeko, betiere laguntza horiek emateko prozedura arautzen duen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduarekin bat etorritz.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2021eko martxoaren 23(e)ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, zenbait diru-baliabide esleitu ditu otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako dirulaguntzak 2021ean finantzatzeko, betiere Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan araututako prozedurari jarraituz. Errege-dekretu horren bitartez, 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dira. Hala, Lanbideren Estatutuetako 10.2 artikulua (p) apartatua xedatutakoarekin bat etorritz (estatutu horiek maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren), Lanbideren zuzendari nagusiak eman behar du argitara erabaki hori.

Azaldutakoa dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2021eko martxoaren 23ko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bitartez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako dirulaguntzak 2021ean finantzatzeko, betiere Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan araututako prozedurari jarraituz. Errege-dekretu horren bitartez, 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dira (erabakia ebazpen honi atxikitako eranskinean dago jasota).

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren Erabakiak.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Ebazpenaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 24a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

ERANSKINA

Erabaki-proposamena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio-Kontseiluarena, zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak 2021ean finantzatzeko, betiere laguntza horiek emateko prozedura arautzen duen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduarekin bat etorritz.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduaren (2012-05-03ko EHAA, 86. zk.) helburua da arautzea otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako dirulaguntzak emateko prozedura. Errege dekretu horren bitartez, 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langile langabeentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dira (196/2010 Errege Dekretua abenduaren 16ko 1783/2011 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen). Sistemas de Instalaciones de Telecomunicaciones, S.A. (Sintel) enpresari baimena eman zitzaion enplegu-erregulazioko espediente horiek ezartzeko.

Dirulaguntzak emateko arau horren indarraldia mugagabea da. Hala ere, arauaren 6.1 artikuluan ezartzen denez, aginduan aipatzen diren laguntzak emateko diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik etorriko dira. Kreditu horiek aldatu ahal izango dira indarrean dagoen aurrekontu-legeriarekin bat etorritz. Hasierako kreditua eta izan litezkeen aldaketak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez iragarriko dira.

Bestalde, aginduaren 4.4 artikulua zentzu positiboa ematen dio administrazio-isiltasunari, baina Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legeak 9. apartatu berri bat sartu du Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51. artikuluan, eta, apartatu horretan oro har dirulaguntzak emateko prozedura guztietarako ezartzen denaren arabera, eskabideak ezetsizat joko dira baldin eta ebazpen espresurik jakinarazi ez bada horretarako ezarritako gehieneko epean. Segurtasun juridikoa dela eta, komeni da onuradun izan daitezkeenei jakinaraztea zer erregulazio aplikatu behar zaien laguntza hauei alderdi horri dagokionez, eta erabaki honetan jaso behar da hori.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2021eko martxoaren 23ko bilkuran eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Baliabide ekonomikoak.

242.440 euro esleitzea otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan ezarritako dirulaguntzak finantzatzeko, betiere Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan araututako prozedurari jarraituz. Errege dekretu horren bitartez, 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak eta laneratzea errazteko neurriak ezartzen dira. Zenbateko horretatik, 28.800 euro 2021eko ordainketa-kredituari dagozkio; gainerako guztia, berriz, hurrengo ekitaldietako konpromiso-kredituari: 2022tik 2033ra. Diru-esleipen hori 3211 programaren kargura egingo da (Enplegua, 41. atala – Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua).

Kopuru hori handitu daiteke, baldin eta indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontuetan aldaketak onartzen badira. Aldaketa horiek eginez gero, horren berri jakinaraziko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

Bigarrena.– Administrazio-isiltasuna.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51. artikulua 9. apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua–, eskabidea aurkeztu eta sei hilabeteko epea igaro ondoren –2012ko apirilaren 18ko Aginduaren 4.4 artikuluan dago aurreikusita epe hori– ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, eskabideak ezetsitzat jo ahal izango dira.



**ESKABIDEA: LAGUNTZA BEREZIAK 2001EKO MARTXOAREN 8KO 76/2000 ETA
2001EKO UZTAILAREN 31KO 25/2001 ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN
ERAGINPEAN DAUDEN LANGABEENTZAT (SINTEL)**

Administrazioak betetzeko

Prozeduraren kodea							
--------------------	--	--	--	--	--	--	--

1. PERTSONA ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

IZEN-ABIZENAK		NAN/AIZ
HELBIDEA		HERRIA
POSTA-KODEA	LURRALDE HISTORIKOA	
TELEFONO-ZENBAKIA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	

2. JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

HELBIDEA		HERRIA
POSTA-KODEA	LURRALDE HISTORIKOA	
KOMUNIKAZIORAKO HIZKUNTZA		
Euskara	<input type="checkbox"/>	Gaztelania <input type="checkbox"/>
JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOAK EGITEKO BIDEA		
Telefono mugikorra		Helb. elektronikoa

3. ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA

- DIRULAGUNTZA BEREZIA
 HITZARMEN BEREZIKO KOPURU GEHIGARRIA
 BERREKITEA
 BERREKITEA



4. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Markatu x batekin dagokiona

Lehenengoa:

- Pertsona eskatzaileak ez du zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zehapenik, eta ez dauka horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, edo Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barnean direla.

Bigarrena:

- Eskatzaileak ez dauka ordaindu gabeko itzulketa-betebeharririk dirulaguntzen arloan.

Hirugarrena:

- Eskatzailea ez dago Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Laugarrena:

- Eskatzaileak ez du hasita itzulketa- edo zehapen-prozedurarik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntza edo laguntza baten ondorioz.

- Eskatzailea dirulaguntza edo laguntza itzultzeko prozeduran edo zehapen-prozeduran sartuta dago (honako hau da dirulaguntzaren edo laguntzaren emaila:)

Bosgarrena:

- Erakunde eskatzailea ez da jasotzen ari helburu berbererako inolako laguntzarik beste administrazio publikoetatik.
- Erakunde eskatzaileak euroko laguntza jaso du, eta hau izan da emaila: (*)
- Laguntza eskatu dio(a)ri (*), eta ebazpenaren zain dago.
(*) Adierazi Administrazioaren edo erakunde publiko edo pribatuaren izena

Seigarrena:

- Eskabide honetan adierazitako datuak egiazkoak dira.



5. DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamendu-jarduera	Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak.
Arduraduna	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.
Xedea	Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin eta prestakuntzarekin lotutako dirulaguntzak kudeatzea eta kontrolatzea.
Legitimazioa	Tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak baliatzea.
Datu-lagapenen hartzaileak	Arloan eskumena duten administrazio publikoak.
Eskubideak	Zeure datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezerezteko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haien aurka egiteko ere, informazio gehigarrian azaltzen diren baldintzetan.
Informazio gehigarria	Gure webgune honetan kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: (https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-eu.shtml)
<p>Hori guztia, betiere, honako xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf) • Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf) 	

6. ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA

- Aurrez aurre, honako leku hauetan:
 - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentralak. Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz
 - Arabako Lurralde Bulegoa, Antilletako pasabidea 14 behea, 01012 Vitoria-Gasteiz
 - Bizkaiko Lurralde Bulegoa, Ercilla kalea 4, 48009 Bilbao
 - Gipuzkoako Lurralde Bulegoa, San Martzial kalea 12, 20005 Donostia / San Sebastián
 - Tokiko enplegu-bulegoak, aurretiatzko hitzorduarekin
- Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

7. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1994ko apirilaren 13ko Aginduaren 5.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza ordaintzeko, kotizazio-buletinak aurkezteko epea 6 hilekoa izango da, dirulaguntza eman den hilabetetik aurrera.

Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren ziurtagiria, ordaindutakoaren arabera langabezia-saria aitortzeari eta sari hori amaitzegtiko iraungitzeari buruzkoa. Sari hori jasotzeko eskubiderik izan ezean, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren ziurtagiria, hala dela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrekin sinatutako hitzarmen bereziaren kopia, hala badagokio.

Honako kasu honetan soilik: lanean hasteagatik dirulaguntza eten eta gero, dirulaguntza berriz jasotzen hastea eskatu duten pertsonak:



- Kaleratze-gutuna, edo kaleratzea langileari egotzi ezin zaiola egiaztatzen duen agiria.

Norberaren konturako lanpostua utzi badu:

- Norberaren konturako Gizarte Segurantzako dagokion erregimeneko baja, non jasota baitako lanpostu-uztea ezin zaiola eskatzaileari egotzi.
- Baja Ekonomia Jardueren gaineko Zergan.

8. INFORMAZIO GEHIGARRIA:

1.- Dokumenturik ez aurkezteko eskubidea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta salbu zu berariaz aurka agertzen bazara, jakinarazten dizugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere eskumenak baliatuz diharduela, honako agiri hauek eskatuko dituela bitarteko elektronikoz. Berariaz adierazten baduzu ez duzula nahi Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dokumentu horietakoren bat eskuratzetik, ondoren adierazitako laukitxoan adierazi beharko duzu, eta, beraz, eskabide honekin batera aurkeztu beharko dituzu dokumentuak:

Baimena
eman ezean

- Zerga-betebeharrak egunean dituzula egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituzula egiaztatzen duen ziurtagiria

2.- Datu pertsonalak egiaztatzea.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, jakinarazten dizugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere eskumenak baliatuz diharduela, beharrezko diren egiaztapenak egingo dituela eskabide honetan adierazitako eta administrazio publikoen esku dauden datu pertsonalak egiazkoak direla egiaztatzeko.

3.- Alta emanda egotea Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan.

Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, pertsona edo erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean agertu beharko du.

Erregistratuta ez badago, edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroko banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimaki bat bete beharko du, hemen adierazitako ereduari jarraituz: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuaren-aldaketa/web01-tramite/eu>.

.....(e)n,(e)koaren (e)(a)n.

Eskatzailearen sinadura